



[www.pixkanakakaskari.org/hazia](http://www.pixkanakakaskari.org/hazia)

**Merkatuko erreferentziak**


Eurostoxx50: %13,7  
Ibex35: %12,2  
Bonoa 10urte: %3,28  
KPI: %0,8 (Otsaila)

**2023 metatutako emaitza**

**%2,14**

**Zorroaren banaketa**

Errenta finkoa %70,1  
Err. aldakorra %23,4  
Inb. alternat. %6,5



**Joera positiboa**

Martxoan Silicon Valley Bankek eta Credit Suissek sustoak eman dizkiguten arren, errenta aldakorreko merkatu gehienetan joera positiboa da oraindik, eta horrek mesede egiten dio gure BGAEaren likidatiboari

Banku horien porrotak ekarri diguna banku zentralen tasen igoeraren erritmoari buruzko eztabaida da, eta interes-tipoen sabaia non egon daitekeenaren galdera.

Adi jarraituko dugu.



# Hazia BGAE: heriotza

Bazkide aktiboa hiltzen bada, alargunari eta Gizarte Segurantzaren pentsioa jasotzeko eskubidea duten umezurtzei, pentsio hori osatu egingo zaie:

- Bazkide aktiboaren soldataren %50eraino ezkontide alargunaren kasuan (81 urte eta 6 hilabete bete arte).
- %20raino Gizarte Segurantzak pentsioa aitortzen dien umezurtzen kasuan (25 urtera arte).

Pentsio eta osagarri guztiek ezin izango dute bazkidearen soldataren %100 gainditu. Konpromiso horiek GAUZATU BGAEk betetzen ditu.

**ALARGUNTZA**



**UMEZURZTASUNA**



## Zein funtsekin betetzen dira konpromiso horiek?

- 1** Bazkidearen partaidetzak (enpresak jarritakoa)
  - 2** GAUZATU
- Bazkide osoak egindako borondatezko ekarpenak ez dira ukitzen. Onuradunentzat eskuragarri egongo dira.

Pentsio-osagarriak betetzeko behar diren kopuruak kalkulatu ondoren, lehenik eta behin bazkidearen funts pertsonalak erabiliko dira, enpresak jarritakoak.

Konpromisoak betetzeko nahikoa ez bada, GAUZATU BGAEak bazkide babesleak horretarako jarri dituen funtsekin osatuko ditu beharrezko zenbatekoak.

Kalkulua egin ondoren kapital soberakinik badago, Gobernu Batzordeak, onuradunek eskatuta, baimena eman ahal izango du hura erabiltzeko.

**PK aldizkarira hemen harpidetu zaitezke: [www.pixkanakakaskari.org/aldizkaria](http://www.pixkanakakaskari.org/aldizkaria)**